

**Azaroan...**

Abian Kultur Elkarte, Bidebarri 2

**zu barik**

**ez naz ezer**

Indarkeria Matxistaren kontra

**zinema zikloa**

## **Azaroak 11**

*Laburmetrai eta dokumental arrastia  
18.00etatik aurrera*

- **No le des la espalda** (30")  
a.f. Mateos\_ Gaztelania

- **Gu gara** (1'51")  
Izaro Glez Ieregi\_ Euskera

- **La hora de las decisiones** (4'26")  
Alicia Murillo\_ Gaztelania

- **Por la calle** (3'35")  
KmKz films\_ Gaztelania

- **La loca de mierda. Piropos** (2'21")  
Cualca!\_ Gaztelania

- **"Amazonas. Mujeres indomables"**  
dokumentala\_ Gaztelania

*Mujeres que rompen con la violencia,  
mujeres que abandonan la palabra victima,  
mujeres rebeldes como tú.*

(<http://amazonas.mujerescreando.org>)

## Azaroak25 18.00tan

### THE COLOR PURPLE

#### Fitxa teknikoa:


Urtea: 1985  
Nazionalitatea: EEBB  
Iraupena: 154 min  
Zuzendaria: Steven Spielberg  
Gidoia: Menno Meyjes (Alice Walkerren eleberrian oinarritua)  
Errepartoa: Whoopy Goldberg, Danny Glover, Margaret Avery, Oprah Winfrey  
Musika: Quincy Jones

#### Sinopsia:

XX. mende hasierako emakume afroamerikar baten bizitza. 14 urterekin, aitak bortxatuta, bi aldiz haurdun geratu ostean eta bere bi umeak saldu eta gero, urteetan zehar jipoituko duen gizon batekin ezkontzera behartuta, bere ahizpa maitatuaren albotik aldentuta eta bizitza zakar bat eramatera beharua izango da. "Txiroa zara, itsusia zara, beltza zara, emakumea zara!" esaten dio bere senarrak une konkretu baten. Celiek garaia eta gizarteak inposaturiko indarkeria eta bazterketa sozialari aurre egiteko indarra eta kuraia topatu beharko ditu apurka apurka.

#### Bitxikeriak:

- Alice Walkerren Fikziozko Pulitzer Saria(1982) irabazi zuen eleberrian oinarritua.
- Steven Spielbergren lehen drama. Hasieran ez zuen zuzendu nahi, bere uestez zuzenean ikutzen ez zuen gai bat jorratzen zuelako (afroamerikarren egoera EEBBn mende hasieran). Quincy Jones produktoreak komentzitu zuen "ET egiteko ez zara zertan extralurtarrek bizi izan edo euren egoera zuzenean ezagutu, ezta?" esanez. Azkenean, Spielbergek, bere arbasoek olokaustoa bizi izandako sufrimendurekin alderatu zuen eta horrek inspiratu ziola esan zuen.
- Whoopy Goldbergen eta Oprah Winfreyren debuta zinean.
- Oskarretara 11 nominazio eta bat ere ez irabazi (polemika sortu zuen, zurrumurruek esaten zuten filmearen gaiagaitik ez zuela eraman saririk)
- Alice Walker ez omen zegoen ados (behintzat, hasieran) Spielbergren adaptazioarekin. Gaur egun, Alice Walkerrek bere liburua Israelen ez saltzeko boikot plataforma baten parte da, estatu honek Palestinaren aurkako indarkeria salatzeke.
- Spielberg askotan errua bota dio bere buruari Celie eta Shugen arteko harreman lesbikoa filmean era hain eskasean aurkezteagaitik eta gai honetan (nobelari gertatzen den moduan) gehiago ez sakontzeagaitik (EEBBko ikusleek mezprezuaren beldur zen).
- Shugen pertsonaia antzezteko hainbat abeslari famatu hartu ziren kontuan. Azkenik, Tina Turnerrek ukatu e a gero, fileman agertzen den Margaret Averyri eman zioten papera.



**Azaroaren 25a** Dominikar Errepublikan diktaduraren aurka borrokatu ziren Mirabal ahizpen omenez **emakumeen aurkako indarkeria salatu eta honi aurre egiteko** nazioarte mailan ezarri zen **eguna** da.

Urtero bezala tamalez, saminez eta amorruez, gurean ere indarkeria hau birsortu eta iraunarazten duten instituzioak interpelatu eta salatzeko beharrezkin aurkitzen gara. Baita guk geuk botere sistema honetan jokatzeko dugun paperaz ohartarazi eta neurriak hartzeko ere.

Mundu osoan zehar, kultura okzidental zein orientaletan, ematen da emakumeen kontrako indarkeria. Emakumeak modu oso sotilean zapaltzetik eraitzeraino.

Euskal Herrian aurten 5 izan dira gizonak eraildako emakumeak.

Egoera honen aurrean, eta indarkeria sexista egiturazkoa dela ulertuta, hau da, gure bizitzaren eremu guztietan pairatzen dugula, honen dimentsio guztiak kontuan hartuko dituen neurriak eta borondate politikoa ezinbestekoa da.

Bestalde, ezinbestekoa da ere eztabaida soziala ematea, gu ere indarkeria eta botere harremanen egituraren parte garen heinean, erantzukizuna guztiona baita eta gatazka honi amaiera emateko pausuak bultzatzea guztioi dagokigu eta.

Egunotan ikusgai egongo diren film-ekin indarkeriaren estrukturaltasuna eta gordintasuna ikusteaz gainera, emakumeek kolektiboki aurre egiteko sortutako bideak ere ikusiko ditugu.

**Indarkeria matxistaren aurrean, eztabaidarako eta erresistentzia feminista bultzatzeko** bitarteko bezala planteatu dugu **zinema ziklo** hau.

**Animatu eta parte hartu!**

